

Abaro eta belar bila

Euri faltak abeltzainak kolpatu ditu / 6-7

**Tren sozialaren
alternatiba, egungo
plataforma berri
mota guztietako
trenak ibiltzeko** / 2-3

**Olatzagutiko
Koskobilo harrobia
lehengoratzeko
proiektua
jendaurrean dago** / 5

**Mikel Zufiaurre
Estevezek TREC
Hipika Mundialean
parte hartuko du,
Orleansen** / 11

**June Kintana disko
jaurtitzailak bere
marka pertsonala
gainditu du: 57,83 m,
Nafarroako onena** / 12

**Paula Urabayen
dantzaria Madrilen
trebatzen egon da,
irabazitako beka
bati esker** / 23

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Araba Tren Sozialaren Alde, Miranda Por el Tren (Burgos), Bureba es Futuro (Burgos) eta Nafarroa Trenaren Alde plataformek Abiadura Handiko Trenari (AHT) alternatiba den ingeniariatza azterketa egin dute. Tren sozial baten aldeko alternatibak Cortes eta Miranda de Ebro artean dagoen trenbide plataforma hartu du oinarritzat. Iruñea eta Altsasu arteko tartean %62,13an lortzen da eta Altsasu eta Gasteiz artean %68,63an. Proiektuaren helburua izan da hura optimizatzea eta dagoen trenbidea modernizatzea. Horretarako, Nafarroan trenbidea bikoiztea proposatu dute (Arabian eta Burgosen bikoiztuta dago). Gainera, dauden tren geratokiak mantendu eta, ahal bada, zeudenak zabalduko lirake. Ingeniariak hainbat bihurtuneren erradioa aldatzea proposatu dute, trenak goi abiadura hartzeko (200 eta 250 km orduko). Sakanatik pasatzen diren trenak gaur egun 140 km orduko abiadura hartzen dute (Olatzagutian 60).

Plataformako kide Mikel Santamaria Rubiok azaldu duenez, "teknikoki ongi eginda dago proiektua. Orain haren berri eman nahi diegu sindikatuei, Nafarroako Parlamentuari eta Espainiako Gobernuari". Azaldu duenez, "gure proiektuko trenbidetik edozein tren mota pasa daiteke. Abiadura handiko trenak ezinen lukete pasa Europako trenbide zabalera behar dutelako". Jakinarazi duenez, ematen dituen arazoengatik 3 erraila jartzeko aukera baztertu dute eta trenbidean zabalera aldakorreko trabesak jarriko lituzkete. "Horrela oso erraza da ibierian trenbide zabaleraetik Europakora aldatzea. Beraz, AHTak pasatzeko errailen arteko zabalera aldatzeko aukera legoke etorkizunean". Hala ere, Alvia trenak, gelditu gabe, bi zabalaretara egokitze gaitasuna dutela jakinarazi du, eta merkantzia eta eskualde trenak prestatzen hasiko direla gaineratu du.

Tren sozialaren alternatiba

Abiadura Handiko Trena egin beharrean gaur egungo trenbide plataforma ahalik eta gehien baliatzen duen alternatiba prestatu dute lau plataformen artean: trenbidea bikoiztu, geralekuak berritu edo zabaldu eta trenak goi abiaduran ibiltzea ahalbidetu

Abantailak

Santamariak esan duenez, "kostua AHTarena baino txikiagoa da". Iruñea eta Gasteiz artean trenbidea eguneratzeak 600 milioi euro balio du. Hego Euskal Herriko bi trazadurak lotzeko bi proposamen daude: ibarra zeharkatzen duenak 704,2 milioi euroko aurrekontua du eta Aralar mendiaren azpitik pasatzen denak 2.061,9 euro. Cortes eta Miranda de Ebro arteko trenbidea eguneratzeko 2.461,15 milioi euroko inbertsioa eskatuko lukeela jakinarazi dute. Bi herrien arteko AHTak, berriz, 4.327,78 euro.

Gaineratu duenez, "plataforma eraikita dagoenez, beste linea bat egiteak baino ingurumen inpaktu askoz txikiagoak ditu. Zenbait kasutan, gizarte eta ingurumen inpaktu positiboak egon daitezke gainera". Plataformako kideak nabarmendu duenez, proiektua gauzatuko balitz plataformaren zerbitzu denborak eta ahalmenak "hobekuntza nabarmena" izanen lukete, "esaterako, Iruñea eta Gasteiz arteko lotura egiteko trenak AHTak baino 7 minutu gehiago basterik ez lukete beharko".

TRENBIDE BERRI BIKOIZTUAN TRENEK 200-240 KM ORDUKO ABIADAN IBILTZEKO AUKERA LUKETE

Bestalde, Santamariak azaldu duenez, "AHTa eginez gero egungo plataforma modernizatu gabe geldituko litzateke eta epe labur edo ertainean 'hil' edo fakturazio txikiko baliabide hustubide bihurtu liteke. Proposamenak hori saihesten du. Zeren AHTa eginen balitz, bi trenbide plataforma genituzke, eta horrek mantentze eta ustiapen kostuak handitzen ditu. Bakarra izanik, txikiagoak dira". Aldi berean, jakinarazi du Teruelera eta Logroñora AHTa gaur egungo trenbide plataformetatik joanen dela, "gure alternatibak horretarako aukera emanen luke".

Esan duenez, "trenbidea bikoiztean bere gaitasuna asko handitzen da: gutxienez 35 km-tik behin trenak aurreratzeko eta aparkatzeko postuak daude, eta gaur egungo beharretara egokitutako baztertzeko trenbideak dituzten bazterbide eta geltokiak aurreikusi dira". Santamariak ziurtatu duenez, "proiektua egin eta martxan jartzeko epe laburragoak ditu, eta inbertsioa hasiera-hasieratik erabat erabil daiteke, egungo zerbitzuak behar hain hobetzea baitakar". Ziurtatu duenez, "trenbidearen zabalera eta elektrifikazioa beste estandar batzuetara erraz aldatu daiteke".

Arakil, 1. alternatiba

Arakilekialderako bi proposamen daude. Aurrenekoan, Otxobi eta Atondo artean trenbideak bihurtu

gunea egiten du Bizkai mendirantz. Atondo herriaren hego mendealdean lubaki baten barruan sartuko litzateke trenbidea eta tunel faltsu batek (663 metro) mendiraino eramanez luke. Bizkai mendia tunel berri baten bidez zeharkatuko luke (1.236 m), eta Hormigones Oskia enpresaren parean bat eginen luke egungo trenbidearekin. Errotzen, egungo zubiaren ordez berria jarriko litzateke eta tunel faltsua (150 m) eginen litzateke. Tunelari esker, herriaren bi zatia integratuko lirateke. Errotz pasata, trenbidearen kotak NA-7010 errepidearen maila bera hartuko luke. Izurdiagako San Joan auzoa pasata trenbideak mendealdeantz trazadura berria luke, bihurtune bat. Hura lubaki baten barruan legoke hasieran eta tunel faltsu bezala (350 m) eta segituan pantaila hormen artean (400 m) joanen litzateke trenbidea. Larraun (50 m) eta Arakil (56 m) gaineko bi zubi berri pasa ondoren egungo trenbidearekin Etxarrenen Sakanako Autobiaren (A-10) azpiko pasarekin bat eginen luke. Izurdiagako trenbide saihesbide horrekin, geratoki berria eginen litzateke herrian.

ITZA ETA ARAKIL LOTZEKO BI ALTERNATIBA DAUDE, BIETAN TUNELAK AURREIKUSI DIRA

Gainera, gaur egungo trenbidea kenduta, geltokia bota eta plaza moduan erabiltzeko aukera legoke. Gainera, tren geltoki auzoan trenbiderik ez legokeenez, gaineko pasarik ez litzateke behar eta herri integrazioa hobetu litzateke.

Arakil, 2. alternatiba

Trenbideak Itzako Erizen bihurtune egin beharrean zuzen segituko luke eta Illunbeta mendia tunel bidez (3.056 m) zeharkatuko luke. Otxobi ondoren sartuko litzateke trazadura lurpean, ondoren Txaga erreka gaineko zubibidea (88 m) legoke eta, segituan, Zapardi mendiko tunela (1.238 m) letorke. Trenbidea Izurdiaga gainean, Nafarroako Autopista (A-15) parean aterako litzateke. Han Izurdiagako geraleku berria eginen litzateke. Trazadura geltoki auzoaren iparraldetik pasako litzateke eta Larraun ibaia zubibide bidez (34 m) gainditu ondoren, Etxarrenen autobia azpiko pasabidean, bat eginen luke egungo trenbidearekin.

Eritze eta Izurdiaga artean proposatutako saihesbide berriak 9.300 metroko luzera luke. Beste alternatibak baino lan handiagoak eskatzen ditu, trazadura guztiz berria baita. Aukera horren aurrekontua handiagoa litzateke 4.400 metro tunel baino gehiago egin beharko liratekeelako. Beste alternatiban bezala, egungo geltoki auzoan aldatetako egiteko aukera emanen luke.

Uharte Arakil

Etxarrendik Hiriberri Arakil artean egungo trazadura segituko luke. Hiriberri Arakilen trenak aurreratzeko eta aparkatzeko postua aurreikusi da. Halako tokiek 600 metroko luzera dute. Horregatik, geratoki berria egitea proposatu dute. Trenbideak Uharte Arakileraino egungo trazaduratik segituko luke.

Uharte Arakil parean trenbidea lurpetik pasako litzateke. Herriatik Sakanako Autobiarako (A-10) ekialdeko irteeraren parean sartuko litzateke lurpean eta men-



EGOKI
Ventanas PVC Leihokak
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



debaldeko autobiaiko sarrera-irteera parean aterako litzateke (1.400 m). Tunela egiteko lubakia egingen litzateke, trenbidea jarri eta gero tunela egin eta lurrez estali. Lur gainean geltoki berria egingen litzateke. Gaur egun trenbideak eta autobia hirigintza eten bat sortzen dute Uharte Arakilen, herrigunea eta Itsesia auzoa banatuz. Trenbidea lurperatzeak neurri batean hori leundu eta leheneratuko luke.

Uharte Arakilgo mendebaldeko autobiaiko sarrera-irteera parean hasiko litzateke trenak aurreratzeko eta aparkatzeko postua. Proiektugileek Arruazu eta Lakuntza artean trazadura zuzenketa proposatu dute (2.643 metro). Lizarragabengoko trenbide gaineko zubiaren parean trenbidearen bihurtzea pixka bat egokitu ondoren, Etxarri Aranatzek trenak aurreratzeko eta aparkatzeko postua eta geltoki berria egitea aurreikusi dute. Bakaikun Oporon hasten den kurbaren erradioa aldatzea proposatzen dute eta geratokia egitea. Altsasuraino egungo plataformak segituko luke, Urdiaingo eta Altsasu arteko mugako kurbaren erradioa hobetuz.

Altsasu

Herriaren parean plataformak bi norabide hartzen dituzenez, trenbide bat bestearen gainetik jartzea proposatu dute. Trenbidea Zangitu parean lurpean sartuko eta Gasteizerako plataformak lurpetik segituko luke Iparraldeko Autobiarekin (A-1) bat egin arte. Irunerako trenbideak lur azaletik segituko luke egungo bidegurutzetik aurrera. Tren geralekua lurpean egitea aurreikusi dute, lehenengo solairuan Irunerako trena legoke eta bigarrenean Gasteizerakoa. Lurperatzeak trenbideak Altsasu hegoaldean sortzen duen hesi efektua kenduko luke, eta sarre-rako zubiak ez legoke.

Olatzagutirako bidean, trazadura zuzenketa txiki bat egingen lukete. Eta porlandegiaren aurretik dagoen bidegurutzeari Gipuzkoarako trenbidea altuera hartzen hasiko da eta Altsasurako trenbidearen gainetik pasako litzateke. Olatzagutiko geratokia hobetu eta Arkinorruti industrialde pareko trazadura pixka bat hobetzea eta Ziordiko geralekua hobetzea da proiektuan jasotzen diren ibarreko azken ekimenak.



Errotz eta Hiriberri Arakil artean aurreikusitako trazadurak bi alternatiba ditu.



Uharte Arakil parean trenbidea lurperatzea proposatu dute. Hiriberri Arakilen trenak aurreratzeko eta aparkatzeko toki egin eta geratokia berrituko litzateke.



Etxarri Aranatzek trenak aurreratzeko eta aparkatzeko toki legoke, eta tren geltoki berria. Lakuntza eta Bakaikuko geratokiak berrituko lirateke.



Altsasun trenbidea lurperatuko litzateke eta tren geratokia lurpean legoke, bi mailatan. Ondorioz, herri sarrerako zuba desagertuko litzateke.



ASTEKOA

RAF ATXURI

'Esaten ez den guztian'. Izaskun Etxeberria Zufiaurrek.

Ekainaz geroztik Altsasuk badu beste ispilugai bat literaturan, eta beste goitzen bat, Altsuondo, alegia.

Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea*-n Obaba ondoko bazterra zen Alaska hotela eta Altsasuko tren geltokia. Helena Tabernaren *La Buena nueva* zinema-sorkarian Altzania izena hartzen zuen hiribildu ferrobarioak; bada, oraingoan Macondo izena (baina ez izana) gogora dakarkigun toponimo batez jantzi du Etxeberriak Burunda, Altzania eta Zangituko herria.

Ipuin sorta zoragarria dugu Pamielak argitara eman duen liburu hau, mimo eta lanketa xehez zizelkatua, ikertze eta entzute prozesu luze eta arduratsu baten fruitu ondua. Atal bakoitzean apaindura garratz, ezti edota iradokiorrez josia, aurreko eta ondoko pasarteak hari mehe bezain sendo batez harilkatuak.

Altsasu (barka, Altsuondo) eta XX. mendea, horra lan horrek hesitzen dituen bi koordinatu zehatzak. Egun bizi ditugunak ulertzeko premiazkoa dugu oinarritzko jakintza bat edukitzea, eta liburu honek, hitz eta tankera ederrez beti ere, hainbat gako eta

ALTSASUK BADU BESTE ISPILUGAI BAT LITERATURAN, ETA BESTE GOITZEN BAT, ALTSUONDO, ALEGIA

XX. mendea ardatz, beraz, eta Altsasu itxuratu dutenak agertoki hutsa baino puskaz gehiago dira ipuinetan barrena: tren geltokia Belle Epoque-an, balnearioa eta guzti, kanpotarren etorrera eta egokitzea, gerra zibilarenak, Euskararen galera isil eta mingarria...

Funtsean Altsasu gogoangarri bat, haren lurrin, hots eta margo ñabarrekin. Esaten ez den guztian asko esaten delako, bejondeizula Izaskun, honelako beste batzuk etor bitez.

Udan badugu zer irakurria!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXE** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

OBJEKTIBOTIK

Txani aitortza Bargagaingo Igoeran

Igandean Tontorraundin bildu ziren altsasuarrak, Bargagaingo Igoeran parte hartuz. Bargagainera igotzeko betiko bidea markatu eta berreskuratu zuen Altsasuko Mendigoizaleak klubak, eta, horretaz gain, keinu ederra izan zuen Sebastian Uhalde "Txan" apaizarekin. "Txan" herrian oso maitatua den pertsona da. Urtero igotzen da Bargagaingo Igoerara, eta aurten ere hala egin du, 81 urterekin. Aitortza egin nahi izan diogu "azaldu dute klubetik. Txanek hunkituta jaso zuen oparia."




OBJEKTIBOTIK



Zorroztarria
@zorroztarria

Streaming plataformetako filmak ikusi nahi dituzula, baina ez dakizula zer eta non dagoen euskaraz? Bisitatu zernonikusi.eus eta xehetasun guztiak aurkituko dituzu bertan! Ongi etorria, @ZerNonIkusi! Bejondeizuela! @PantailakEus

Zer Non Ikusi



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Idoia Artieda Larraza

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Koskobilo harrobiaren leheneratzea jendaurrean

Duela bi urtekoaren ondoren, bigarren aldia da Cementos Portland Valderrivas enpresak proiektua sustatu duena; jasotako ekarpenak gehitu ditu. Han dauden materialak txoko batean utzi, lurra zabaltu eta belar eta zuhaixkak jarriko dituzte

OLATZAGUTIA

Nafarroako Gobernuak eskatuta, Cementos Portland Valderrivas enpresak Koskobilo harrobia lehengoratzeko bigarren plana egin du. Horretarako, egindako alegazioak eta ekarpenak izan ditu kontuan. Plana jendaurrean irailaren 3ra arte egonen da hari alegazioak aurkezteko aukera. Ahal dela, Nafarroako Gobernuak Erregistro Orokor Elektronikokoaren bitartez aurkeztu behar dira. Aurreneko proiektuarekin alderatuta, Nafarroako Gobernuak eskatuta, harrobian aurri egoeran dauden azpiegitura guztiak botako direla jasotzen du planak. Olatzagutiko Udalak



Koskobilo harrobia zenaren mendebaldeko aldea. ARTXIBOA

haietako bat mantentzea eskatuta zuen, "garai bateko meatzaritza jardueraren leku gisa", baina eskaera ez da onartua izan.

Harrobiaren iparraldean, mendebaldean eta hego-mendebaldean pareta bertikalak daude, 50 metro luzeagoak batzuk. Ipar-mendebaleko paretaren azpian dauden materialak (3.499 m³) kendu eta baimendutako kudeaketa enpresa batek eramanen ditu. Plazaren hego-mendebaldeko harri eta lur isuriak (1.957,61 m³), eta, ondorioz, zorua irregularra da. Enpresak zaharberritze proiektuan proposatu du horiek ipar-mendebaldeko txokora eramatea, hura betetzeko. Haren gaitasuna 2.020,28 m³-koa da. Obra-hondakinak harrobiaren ipar-mendebaldean eramatea, inguruan ahalik eta hobekien integratzeko. Guztira, 11.506,43 metro kubiko mugituko liratekeela aurreikusi du. Bestalde, paretaren erdiko aldean, azpian, lur pilaketa dago (2.224,23 m³). Lur hori 18.823,18 m²-etan zabaltzeko dute, 12 cm-ko altura emanaz.

Planean jaso denez, harrobira ez da kanpotik materiala eraman beharko. Helburua da bertan

dagoen materiala mugituz lerro leun eta jarraituko topografia osatzea. Bestalde, landareria berriro harrobira bueltatzeko neurriak hartuko dira, eta, horretarako, bertako espezieak erabiliko dituztela aurreratu dute. Belarra eta zuhaixkak erabiliko dituzte egiteko horretarako. Toki batzuetan naturak bere bidea egin duenez, hura errespetatuko da. Bestalde, harrobiaren perimetroan, amiltzeko arriskua dagoen tokietan eta beste batzuetan itxiturak jartzea aurreikusten du planak. Plana gauzatzeak 51.867,8 euroko aurrekontua luke.

Bestetik, Nafarroako Gobernuaren 2022 aurrekontuei PSNk eta EH Bilduk elkarrekin aurkeztutako zuzenketa bati esker, Olatzagutiko Udalak 80.000 euroko jasoko ditu. Udalak Koskobilo harrobian parke bat eginen luke diru horrekin. Izan ere, Aranzadi zientzia elkarteak egindako lanaren ondorioz jakin da makina bat animali izan zirela aspaldian han. Parkeak, beraz, milaka urtez bertatik igaro diren animalia espezieez gozatzeko aukera emanen luke.



Errematerako, lehortea

Euria faltak belarra erre du, arta soroetan landare asko ez dira atera. Abeltzainek aziendarendako bazka biltzeko garaian ez dute behar zutena jaso. Inflazio garaian ez duten janaria erosi beharko dute, lehendik okerra zen egoera makurtuz

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuari lotuta dago INTIA sozietate publikoa, eta hango abeltzain aholkularitza arduraduna da Mikel Nazabal Leiza etxarriarra. Nazabalek aspaldi esana du klima aldatu dela, "ondorioak ikusten ari gara. Bakarren batek uste badu klima aldaketa 'kontu bat' dela, adibide ederra dauka hori horrela ez dela ikusteko". Azken asteetako beroaldiaz eta sortu duen lehortez ari da. "2003ko agorrilekoa oso gogorra izan zen, epe motzean bero handia egin zuen. Baina aurretik euria egin zuen, eta, ondoren, asko. Eta sektorearen egoera hobetu zen". Baina aurten maiatzaz geroztik euririk ez duela egin azaldu "eta gauza oso oker" doala azpimarratu du.

Belar gutxiago

Nazabalek azaldu duenez, "negua lehor eta suabe joaten bada mesedegarria da". Aurtengoa, gutxi gorabehera, halakoa izan da. Abeltzainek azienda kanpora ateratzeko aukera izan zuten, belarra jaio zen... "Udaberria ona etortzea oso-oso garrantzitsua da, urte guztiko ekoizpena baldintzatzen baitu. Alde horretatik, martxoa eta apirila nahiko onak joan zen. Siloa egiteko belar mozketak oso ona izan zen. Baldintza onetan egin zen".

Baina aurreneko belar mozketak egin ondoren, euririk ez du egin. Bigarren belar mozketak egiten da normalean. "Egin duenak oso gutxi atera du. Eta lehen mozketak berandu xamar egin dutenek, lehortea eta beroarekin, ez dute ezer lortu", azaldu du Nazabalek. Gaineratu duenez, mozketak baten eta bestearen artean aldea dago: "aurrenekoan belar gehiago dago, baina egu-

raldiak ez du ematen lehortzeko eta siloa egiten da. Normalean, bigarren mozketak gutxiago da, kalitatez hobea eta baldintza normaletan lehortzen da".

Ziurtatu duenez, bigarren mozketak egitea ez lortzean edo belar gutxiago jaso dutenez, abeltzainek %25 eta %33 belar gutxiago jaso dute. "Hori kaltegarria da. Aziendarendako etxeko janaririk ez badago, kanpotik erosi behar baldin bada, hain garesti baldin badago, eta lehendik errentagarritasuna hain txarra baldin bada, kaosa izanen da".

Bazkarako arto pila ereiten da, "normalean esne eta haragi behiendako". Artoak erein ondoren ongarri asko behar du. "Oso gogorra da eta, normalean, uzta ona ematen du. Baina aurten erein eta gero ez du euririk egin. Gaixotasun batzuk izan ditu eta ez da atera". Horregatik, abeltzain batzuek bigarren erein dute artoa. Baina euririk egin ez duenez, artasoroak "penagarri dau de, ez da ezer atera. Eta ez dakit zer gertatuko den ekoizpen horrekin. - Hamabost egunetan ez du euririk ematen, eta euririk gabe ez da ezer aterako".

Artoarena abeltzainendako beste murrizketa handi bat da eta eroatera joanez gero, errentagarritasunik ez dutela aterako azaldu du Nazabalek. "Nafarroan ureztatutako lur asko dagoelako. Baina eskaera eta eskaintzaren merkatua da. Dena garestitu da. Jende askok artoa erosi nahi duela ikusten badute, berriro pila garestitutako da. Ez dakit abeltzainek dirua nondik aterako duten hori ordaintzeko".

Mendia

Goian belarra erreta dago. Mendia gaina herriak baino freskagoa da eta han belarra "geroago"

jaiotzen dela argitu du Nazabalek. "Lurra sakontasun gutxi du. Ondorioz, belarra ateratzeko euria maiz egitea behar da. Ez kristoren erauntsia eta gero egun asko euririk egin gabe, ez. Mendian belarra ateratzeko euria maiz egin behar du".

Apirilean belarra jaio zen, baina gehiago ez da jaio, eta beroak belar guztiak erre ditu. Mendien artean ere aldea dago. Aralarren eta Urbanan pagoak daude eta itzala ematen dute. Andian elorri batzuk dira aziendari abarrea eskaintzen dietenak. Nazabalek argitu duenez, "normalean, lehena jaten den belarra, hobea eta kalitatekoa, arrasokoa da. Eta gero abarora sartzen dira". Zuhazpean belarra hobeki mantentzen da, nahiz eta "latzagoa" izan. "Urbanan estalpeak badaude, Andian zailagoa da itzala opatzea. Eta beroa egitean animaliek gehiago sufritzen dute; horretan Andia okerragoa da".

Uraren premia ere badago mendian. Baltsa batzuk lehortu egin dira, eta handik hornitzen ziren askak urik gabe gelditu dira. "Euriaren pasioz betetzen dira, eta euririk ez du egin". Jan eta ur faltaren ondorioz, "beharko eta" ganaduzaleek azienda jaitsi egin beharko dute. Batzuk horretan hasi dira dagoeneko. "Eta, tristea da, baina behean ere ez dago janik. Sekula ezagutu gabeko egoera da hau".

Azienda

Animalien egoera ere kontuan hartzekoa da: ernai daude, esnea ematen... Horren arabera, abere bakoitzaren beharrak desberdinak dira. Kumeari esnea ematen diotenean behar handiena dago. Horregatik, horiei "behar den jan guztia eman behar zaie". Gaineratu duenez, "kumerik gabe



Belarra guztiz horituta Mendizelain.



Ardiak Binkukolo zuloa baltsaren ertzean pilatuta.



Leizako ur baltsa lehortuta, eta ondoko aska urik gabe.

baldin badago eta ernai badago, beharrak gutxiago dira. Momentu honetan haragitarako behiak eta ardi gehienak horrela daude. Jana eman behar zaie, baina kantitate gutxiago". Nazabalen iritziz, alternatiba da "etxean dagoen jana ongi administratzea da: asko behar duenari asko eman eta gutxi behar duenari gutxiago eman; ez denei berdin".

Jakinarazi duenez, "jan gutxi dutenez, abeltzain asko pentsatzen ari dira dutenazienda buru kopurua jaistea; behi edo ardi zaharrrak edo dena delakoak saltzea. Kopurua jaistea 'gaurko jana eta biharko gosea' da. Lan egin eta dirua galtzeko ez gaude inor. Ezagutzen ez dugun egoera da, egunetik egunera okertzen ari dena. Erabakiak hartzeko ongi pentsatu behar da".

Abeltzaintza, "gaizki"

Abeltzaintzari "natura kontra jarri" zaio lehortearekin eta berorekin. "Abeltzainen egoera, egitura aldetik, lehendik kaxkarraren zen. Ekoizpen kostuak goraka zihoazen. Orain, gerra dela eta, kostuak oso-oso baina oso altu jarri dira. Bere errentagarritasuna ona izateko abeltzainek garesti saldu behar dute. Baina bestalde, kontsumitzaileok onartuko dugu prezioak hain gora igotzea? Inflazioa goraka doa eta gauza nola bukatuko den ez dakit". Izan ere, kontsumitzaileendako prezioak igotzen badira, abeltzainendako "berdina edo okerrago. Oso gaizki baitago guztia". Egoera larriago bizi dute makineria erosteko edo abeltzaintza egiteko inbertsioa egin berri dute ganaduzaleek, "hau haien akabera izan daiteke".

Errepikatua duenez, "sekula ezagutu gabeko egoera da. Abeltzainak egoera txarrera bizitzera ohituta daude, baina, orain, kezatzeko arrazoiak badituzte. Baina gaur egungo egoera izugarri txarra da, eta ez dakit nola bukatuko duten. Urtetik urtera abeltzain gutxiago dago. Baina egoera honekin oso gutxi geldituko dira, eta animalia kopurua ere oso txikia izanen da, egoera honetan inork ezin baitio eutsi".

INTIAkoek departamentuarekin harreman "ona, handia eta estua" dute, eta egoeraren berri eman diote, eta azaldu diete abeltzainik gabe gelditu nahi ez badugu laguntzak beharko dituztela. Departamentuan "egoeraren kontzientzia dute", argitu du etxarriarrak.

Uholdeen kontrako planak azken bulkadaren zain

Arruazuko eta Altsasuko udalek onartu ondoren, Nafarroako Gobernuaren Babes Zibileko Zerbitzuaren batzorde batek homologatutakoan, udalek zerbitzuko kideekin batera, haiek ezartzen hasiko dira

ARRUAZU / ALTSASU

Nafarroako Uholde Arriskurako Larrialdi Plana bereziaren arabera, uholde arriskua duten udalek haien aurrean jarduteko plana onartu beharra dute. Jarraian protokolo horien bidez, uholde kasuan eta haiei aurre egiteko helburuz, udal baliabide eta zerbitzuen antolakuntza eta jarduerak zehaztu behar dira. Dirulaguntza jaso eta plan bana egin dute Arruazuko eta Altsasuko udalek. Planek Nafarroako Gobernuaren Babes Zibileko Zerbitzuaren oniritzia jaso dute. Udalek onartu ondoren, Babes Zibileko batzorde batek homologatuko ditu bi planak.

Arruazu

Ubeldeetik gertu eta ia haren altuera berean dago herria, eta uholde arriskua bi tokitik heldu zaio. Normalean, uholdea sortu eta ura pitteka eliza aldetik igotzen da herrirantz eta ubeldetik gertuen dauden eraikinei kalte gehien eraginez. Gorka Ovejero Ganboa alkateak azaldu duenez, "urtero etxeren bat kaltetzen da eta hamar urtetik behin, gutxi gorabehera, etxe gehixeago. Azken urteetan ubelde bazterreko ezpondak kendu eta maldan jarri direnez ura atera eta berehala ubeldera itzultzen da".



Arruazu urpean gelditu zen abenduaren 10ean. ARTXIBOA

Uholdea sortzen duen beste tokia Arruazu eta Lakuntza artean dagoen auto hilerria pasata dagoen ubeldearen bihurtzea da. "Urak salto egiten du eta hango larreak, soroak, baratzeak, NA-2410 errepidea eta herrirako autobia azpiko zubia estaltzen ditu". Alkateak gaztigatu duenez, "trenbide gaineratik zubia eraiki zutenetik egoerak makurrera egin du. Zubia lurra metatuz egin zuten, eta uraren ibilbidea-ri aztapo egiten dio eta asko laguntzen du autobia azpiko eta ondoko bideberria urpean uzten".

Ondorioz, arbazarrek abenduaren 10eko moduko uholderik ez dute 75 urtetan ezagutu. Izan ere, aurreko uholdeetan Sakanako Autobideak (A-10) ura gelditzeko harresi funtzioa jokatu zuen eta haren iparraldera dauden lurak eta herrirako sarbidea "bakarrik" estaltzen zituen urak. Azken uholdean urak autobia gainditu eta, ondorioz, herrirako etxe gehienek ur uholdea pairatu zuten. "ura kaletxikitik sartu, Kaleaundi guzia zeharkatu eta Bidezar kaletik autobia eta ubeldera jausi baitzen".

Altsasu

Herria Arakil eta Altzania ibaiak bat egiten duten tokian dago, eta horrek sortzen du uholde arrisku handiena. Baita autobiek eta trenbideek sortutako buxadurek ere. Gainera, uholde arrisku hori larriagotu egin daiteke bi ibaien goiko partean pilotutako plu-biometria-maila handi baten ondorioz; esaterako, neguan, eta, ondorioz, ur goraldiaren puntak bat etor daitezke herritik pasatzean.

Arroaren arriskugarritasunean eragina duten beste faktore batzuk azpiegitura hidraulikoek araututako azalera txikia da. Altsaniak Urdalurko uberka du. Bestalde, uraren kontzentrazio denbora oso txikia da, 6 ordu inguru Arakilen eta 8 ordu inguru Altsanian. Horrek esan nahi du Arakilen arroak ez duela erantzun denbora handirik. Altsaniaren kasuan ez da hain garrantzitsua urtegiak erregulatzen baitu.

Planak jaso du urarekin hesierena egiten duten zenbait zubi kentzea, egokitzea edo aldatzea, ibaian urari oztopoak kentzea eta ibaiaren sekzioa handitzea. Isasia industrialdean egiturazko neurriak hartzea zaila da, horregatik, proposatzen du drainatzea hobetzea, xukatzeak ponpak jartzea, eta, batez ere, uholdeen aurrean abisatzeko sistema hobetzea, establezimenduek garaiz erreakzionatu ahal izan dezaten. Prebentzioan uholdeen aurretik, bitartean eta ondoren altsasuarrek egin dezaketinari buruzko aholkuak jaso dira planean. Baita herritarren autobabeserako hainbat neurri ere. Herritik pasatzen den zatietan ibaien garbiketa egitea ere jaso da planean. Urdalurko uberka hautsiz gero, gaztigatzeko alarma sistema jartzea proposatu du ere.

Kaixo
Kafetegia - Jantetxea

Menua, plater konbinatuak eta ogitarlekook aukeran

García Ximénez 20-22
948 469 124 Altsasu
www.restaurantekaixo.com

kaxeta
LIBURUDENDA

Abentura zirraragarriak dauzkagu zuretzat

fotokopia@kaxeta.net
628.542.519
948.460.477

PORTUKO
okidunak

Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz:
948 460 988



Amaia Ijuria, Bego Zestau eta Silvia Marañón, zurrumurruak uxatzeko abanikoarekin.

Munduko arrozak lehenengoz Etxarri Aranatz

Abuztuaren 4an, festetan, Etxarri "kulturen arteko eltzetxe erraldoia" bilakatu nahi dute. Izena ematea, zabalik


Alfredo A. / Maider B. ETXARRI

Etxarri Aranatzek Munduko Arrozak ekimena hartuko du lehenengoz. Abuztuaren 4an izango da, festetan, "eta oso harro eta pozik gaude. Etxarri Aranatz dugun aniztasuna geroz eta handiagoa da, eta hori aberastasuna da denondako, Etxarri Aranatz denok egiten dugulako" azaldu zuen aurkezpenean Silvia Marañón Chasco alkateak. Horregatik, herritar guztiei ekimenean parte hartzeko gonbita egin zien. Izena ematea zabalik dago uztailaren 29ra arte, Mank-eko Anitzartean Kulturartekotasun

Zerbitzuan. Dagoeneko Mali, Ekuador, Ukraina eta Etxarri Aranatzko taldeek eman dute izena Munduko Arrozetan.

Aipatu zerbitzuko teknikari Bego Zestauk adierazi zuenez, "Etxarri Aranatz bizi den jendeak elkarren artean ezagutzeko aukera izango du, sukaldatzen duten bitartean". 10:00etan hasiko dira prestatze lanetan eta 13:15ean dastaketa izanen da. "Ez da lehiaketa, elkarbizitza baiko-rra egiteko pauso bat baizik. Etxarri kulturen arteko eltzetxe erraldoia bilakatuko da". Halaber, Munduko Jolasak egongo dira.

DUELA 25 URTE...



Arbizuko toponimia

Bi urte izanen ziren Mikel Belaskok toponimiari buruzko hitzaldia eman zuela Arbizon. Gaztelaniaz izan zen eta Arbizuko euskara batzordeko kideei hura euskaraz argitaratzea bururatu zitzaion. Jarri eta egin. Arbizuko Toponimia lana argitaratu eta herriko etxe guztietan banatu zuten. Argitalpenak, toki izenak, haien esanahia, herriko mapa eta herriaren historiari buruzko lan txiki bat zuen.

Festetarako hainbat lan despeditu dituzte

San Martin kaleko Barazki Gunean eraikitako estalpea herenegun mustu zuten, festekin batera. Bestalde, autokarabanendako gunearen ondoan parkea osatu du udalak eta parte hartze aurrekontuen bidez zehaztutako lanak ere eginak daude

IRURTZUN

Festetan Barazki gunea gazteek kudeatzen dute. Han kontzertuak bazkariak eta bestelakoak antolatzen dituzte. Eta herenegun hasi ziren ospakizunetan ere horretan ari dira, baina karpa baten azpian egin beharrean estalpe berri baten pean ari dira. Izan ere, Irurtzongo Udalak garai bateko azokako barazkiak saltzeko plaza estalpe baten bidez estali du. Herri erdian dagoen erabilera anitzeko espazio berri-itu horrekin, Irurtzongo Udalaren asmoa da irurtzundarren gizarte bizitzaren espazio egituratzail-leetako bat bihurtzea. Estalpea egiteko lanak apirilaren 4an hasi eta asteartean despeditu ziren. Udalak estalpea eraikitzen di-ruzaintzako gerakinek 276.500 euro bideratu ditu. Herenegun eguerdian trikitixen doinura mustutako estalpeko zoru- plastikoz babestu dute, mustu berri- tan eta ospakizun egunetan zi- kintzeak "pena" ematen ziela aipatu du Aitor Larraza Carrera alkateak, horregatik, jarri dute- la plastikoa.

Barazki Gunea San Martin kalean kokatuta dago. Eta kale horren zati handi bat, kasik Li- zarra kaleko bidegurutzetik gorantz, konpondu zuten duela hiru aste. Zegoen asfalto- kendu,



Barazki Guneak begirada ugari erakarri ditu.

berria jarri eta haren gainean zegokion seinalez tapena margo- tu zuten.

Plazaola

Bide berdearen ondoan autoka- ranendako gunea dago. Eta haren alamenean, zuhaizpean, bidaiari-ek eta bidea egiten du- tenendako atsedeen gunea. Bide- tik hara sartzeko egurrezko pasabidea jarri du udalak. Mahai eta aulkiez aparte, orain Mikel Lasartek egurrez egindako hau- rrendako parke bat dago. Hura hiru elementu osatzen dute:

egurrezko tren bat bere lokomo- tora eta bidaiariendako aulkiekin, barraskilo handi bat eta gora eta behera ibiltzeko piramide txiki moduko bat.

Azkenik, Irurtzongo Udalak parte hartze aurrekontuen 70.000 euroko partida gauzatu du: Erga magaleko mendi ibilbideak ho- mologatu ditu; ur biltegi zaha- rrean itxitura jarri eta begira- tokia jarri du; Plazaolako apar- kalekuaren zati bat asfaltatu du, biltegi- rako bidean segitzen duena eta natur bidearen hiru atsedeen gune jarri dira.

Udalak zerbitzu anitzetako bi langile kontratatuko ditu

Olatzagutiko Udalak jakinarazi du zerbitzu anitzetako enplega- tu oposizio lehiaketa bidez kon- tratatuko dituela. Deialdi horre- kin udalak, alde batetik, bi lan- postu aldi baterako bete nahi ditu, eta, beste aldi batetik, sor- daitezkeen langile beharrak ase- tzeko izangaien poltsa bat era- tuko du. Eskabideak agorri- laren 1eko 23:59rako aurkeztu daitezke.

Lau lan eginda eta beste hiru emateko deialdia

Basamutur eta baso itxi artean dagoen Maibeloko bidea aste hasieran asfaltatu zuten. Ondo- rioz, hilerrietik baso ertzearaino eta handik Dantzalekura daraman biderainoko bideak asfaltatuta daude. Lanak Lakita, S.A. enpre- sak egin dit 53.290,18 euroren (BEZ kanpo) truke. Maibeloko eta Otaiko bideek bat egiten du- ten bidegurutzean, Uzkullu erre-

ka dago. Zubiko baranda oso eskasa zen eta berria jarri du udalak. Gainera, San Juan er- mitaren inguruko hondatutako hesia kendu eta akazia egurrez egindako batekin ordezkatu du, eta bigarren zubian hesia jarri du. Lan horiek guztiak Excava- ciones Macia SM-k egin ditu 21.700 eurorengatik (BEZa kanpo). Az- kenik, Altsasuko Udalak Erkuden kalean, Frontoiko zeharbidean eta Intxaurren plaza- n egin nahi dituen lanak emateko deial- dia egin du.

FESTAK

IRURTZUN

UZTAILAK 22 Ostirala

10:00 Dianak.

11:30 Erraldoi eta buruhandien konpartsa.

13:00 Pikuxarrek antolatutako Bermouth musikatua Gaitaberri Brass taldearekin, Piku plazan.

14:00 Kalderete lehiaketaren epaia.

Oharra: izena ematea 13:00ak arte, arkupeetan.

14:30 Kalderete bazkaria.

Oharra: Antolatzailleek ogia, ardoa, mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte.

Izena ematea udaletxean egin beharko da uztailaren 19ra arte. Plazako karpan izena ematen dutenendako izanen da.

17:00 Bazkalondoa, kalejira eta kale animazioa, Rock kalean bandarekin.

18:00 Gorriti eta bere animaliak, Gernika plazan.

18:30 Erremontista profesionalen jaialdia: Nafarroako Foru Komunitateko XVII. Torneoko kanporaketa. Sarrera libre.

19:00 Karaokea, Barazki Gunean. IAGAk antolatuta.

20:00 Dantzaldia Jamaica orkestrarekin.

22:00 Larrain dantza.

22:30 Zezensuzkoa, kultur etxetik Gernika plazara.

23:30 Kontzertuak: Vaire, Katez eta Djungle. IAGAk antolatuta.

23:30-02:30 Bokata

autogestionatua eta gazte gaua musikarekin, Gernika plazan.

00:00-03:00 Dantzaldia Jamaica orkestrarekin.

UZTAILAK 23 Larunbata

10:00 Dianak.

12:00 Aurkitu gabeko Altxorra Zirika Zirkus taldearen emanaldia, Foru plazan.

13:00 Bermut musikala Pancho Balbuenarekin, Foru plazan.

17:00-19:00 Haur eta familiendako parkea, Gernika plazan.

17:30 Distopia elektrotxaranga, Barazki Gunetik. IAGAk antolatuta.

18:00 Afizionatuen Eskuzko Pilota lehiaketa.

20:00 Kalejira Mexico Lindo Sí Señor martxiarekin.

20:30 Mexico Sí Señor Mariatxiaren kontzertua, Foru plazan.

22:00 Larrain Dantza.

22:30 Zezensuzkoa, kultur etxetik

Gernika parkera.

00:30-04:30 Markelin disko

jartzailearen disko festa.

00:30 Kontzertuak: Muga Zero, Nafarroa 1512, Harresi eta DJ Muru.

IAGAk antolatuta.

UZTAILAK 24 Igandea

10:00 Dianak.

11:15 Artika, Lekunberri eta Irurtzongo erraldoi eta buruhandien konpartsen topaketa.

14:00 Erraldoi eta buruhandien konpartsaren agurra.

17:30 Irurtzongo dantza txikien eskolaren emanaldia, plazan.

18:00 XXIV. Eskorga kronoeskalada.

20:00 Planeta Trampolin konpainiaren Back 2 Classics kale zirku ikuskizunaren emanaldia.

21:00 Dantzaldia Trikitiens taldearekin.

22:00 Larrain Dantza.

22:30 Zezensuzkoa, kultur etxetik Gernika parkera.

22:30 Afari autogestionatua, Barazki Gunean. Peluka fest. Ondoren, V. Azeituna jaurtiketa lehiaketa.

IAGAk antolatuta.

00:00-03:00 Gaixoa ni. Dantzaldia Trikitiens taldearekin.

BAKAIKU

SANTIO FESTAK

UZTAILAK 22 Ostirala

18:30 Play Back erakustaldia, plazan.

19:00 Txorongo Txaranga, herrian zehar.

19:00 Festen hasiera: Etxajua, bonba japoniarrak eta buruhandiak. Bakaikuko Zortzikoa.

20:00 Auzatea, Bakaikuko Ehitari elkartearen eskutik. Txorongo Txaranga.

22:00 Afaria: Etxean eta bizirik nahi ditugu, plazan.

00:00-04:00 Kontzertuak: Deserrite, Muga Zero eta Nafarroa 1512 taldeak.

UZTAILAK 23 Larunbata

12:00 Haur eta gazteendako jolasak, plazan.

Oharra: Lau urtetik gorako haur eta gazteei zuzenduta. Bizikleta eraman beharko da.

Jokoak: Zaku lasterketa, puxikak lehertzea, botilak urez betetzea, sagarrak hozkatzea, aulki jolasa,



IRURTZUN Irurtzundarrak eskertuz eta Pello Alizueta gogoan zutela bota zuten Ramon Dorronsoro eta Juana Urria Iratxo taldeko kideek Irurtzongo festei hasiera ematen zien suziria.

arrautzak garraiatzeko jolasa eta bizikletekin zintak hartzeko ginkana.

13:00 Apar festak, eskola inguruna.

Oharra: txankletak eraman.

13:00 Euskal eta kubatar musikariek osatutako La Joderera musika taldearen emanaldia.

13:30 Auzatea, jubilatutako elkartearen eskutik.

18:00 Pilota partiduak, Iturrarte pilotalekuan.

Txikiak: Lorea Olarra – Odei Loidi / Unax Garciandia – Oihan Lopetegui Axio Saez de Adaba – Haitz Lazkoz / Haitz Larrañaga – Aiert Flores

Aiora Baleztena – Oier Mendiñeta / Naroa Razkin – Iker Loidi

Kimuak: Oihan Garmendia – Manex Balda / Jurgi Saracibar – Jon Razkin Haurrak: Xabi Etxabarri – Jokin Olarra / Asier Zubiria – Berat Izagirre

19:00 Bertsoak librean: Julio Soto eta Amaia Agirre, Gabriel Aresti

Barnetegia.

20:00 Auzatea, Gabriel Aresti Barnetegiaren eskutik.

20:00-22:00 Trikidantz taldearekin dantzaldia.

22:00-01:00 Indarkeria sexistaren kontrako informazio gunea, plazan.

00:00-03:30 Trikidantz taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 24 Igandea

12:30 Puzgarriak, eskolako belardian.

13:00 Eztanda txaranga.

13:30 Bonba japoniarrak, plazan. Auzatea.

17:00-20:00 Puzgarriak, eskolako belardian.

19:00-20:00 Aizkora apustua, plazan.

19:30 Salbea eta bezperak, Santio basilizian.

20:00 Auzatea.

20:00-22:00 Fan & Go taldearekin dantzaldia.

Etxarri Aranazko abesbatzak jaurtiko du suziria

Maria Goikoetxea Etxarri Aranazko Abesbatzako lehendakari ordeak piztuko du Etxarri Aranazko festei hasiera ematen dien txupina. Abesbatzak 50. urteurrena ospatu du, eta urteurrena prestatzea ez dela erraza izan esan dute abesbatzako batzorde-tik, are gutxiago pandemia garaian izan dela kontuan hartuta. Horregatik, batzordeko kideri bati ohorea ematea pentsatu zuten. Batzordeko kideak balioan egonen dira ere.

Abesbatzak Etxarri Aranazko festetan, uztailaren 30ean, larunbata, 20:00etan, Andra Mariaren ermitan, Salbea kantatuko du Parrokiako Abesbatzarekin batera.



IRURTZUN Festak hasi aurretik Irurtzongo Udalak 2021ean jaiotako haurrei ongi etorria eman zien, eta herriko zapia eta oparixko bat eman zien.

20:30 Euskaraldiaren aldeko photocall-a.
22:00 Zezenzuskua.
00:00-03:30 Fan & Go taldearen dantzaldia.

UZTAILAK 25 Astelehena

12:00 Meza Ospakizuna.
12:00 Haurrentzako tailerrak.
13:00 Haize Berriak Bandaren emanaldia, plazan.
13:30 Auzatea.
19:00 Etorkizuna Dantza Taldearen dantza emanaldia.
20:00 Auzatea Bakarreko Etxea Elkartearen eskutik.
20:00-22:00 / 00:00-03:30 Gozo-Gozo taldearekin dantzaldia.

UZTAILAK 26 Asteartea

11:00 Sakanako trikitilariak, herrian zehar.
12:00 Meza adinekoen omenez.
13:00 Iñaki Bizkairaren emanaldia, plazan.
13:15 Kantuz (Bakaiku, Arbizu, Etxarri eta Altsasu)
13:30 Auzatea.
13:30 Bonba Japoniarrak, plazan.
14:30 Jubilatuen bazkaria eta omenaldia elkartean.
Ondoren, Iñaki Bizkai musikariaren emanaldia.
18:30 Bonba bat naiz kale antzerki familiarra.
20:00 Auzatea.
20:00-22:00 Gabezin taldearekin dantzaldia.
22:00 Zezenzuskua
22:00 Afari Herrikoia.
00:00-3:30 Gabezin taldearekin dantzaldia.

OLAZTI

UZTAILAK 22 Ostirala

GAZTE EGUNA, OGAK ANTOLATUTA
12:00 Txupinazoa.
Poteo latza.
14:30 Bazkaria.
18:00 Mozkor olinpiadak.
20:00 Bilgune feministaren kontzentrak, gaztetxean.
20:30 Pintxo potea, gaztetxean.
23:30 Kontzertuak: Nabatz eta Bidean erromeria taldeak.

UZTAILAK 23 Larunbata

10:45 Kartel lehiaketako sari banaketa, Gartzia Ximenez plazan.
11:00 2021. urtean jaiotako haurrei zapi banaketa, Gartzia Ximenez plazan.
11:30 Hamaiketako, Gartzia Ximenez plazan.
12:00 Santa Anaren omenezko festak iragartzeko suziria, udaletxean. Kalejira La Cigarra txarangarekin. Erraldi eta buruhandiak.
12:00 Ezkila jotze nagusia.
13:00 Euskal preso, iheslari eta errefuxiatuen eskubdeen aldeko brindisa txoznan. OGAK antolatuta.
17:00 Txirrindularitza eskolen proba, Erburua kiroldegia inguruetan. Sari banaketa.
18:00-20:00 Eztanda txaranga.
20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa, San Migel plazan.
20:00-22:00 Joselu Anaiak taldearekin musika, San Migel plazan.
21:00 Bonba japoniarrak, intsumisioaren plazan.
22:00 Zezenzuskua.
00:00 Kontzertua: No Limits eta

Brigade Loco taldeak, futbito pistan.
00:30-03:30 Joselu Anaiak taldearekin musika, San Migel plazan.

UZTAILAK 24 Igandea

12:00 Hamabietakoa San Migel elkartek eskainia, San Migel plazan.
13:00 Mariachi Impreial taldearekin bermut kontzertua, San Migel plazan.
14:30 Untxi kalderete lehiaketa, Memoria Historikoaren parkean (euria egingo balu, Sutegi gimnasioan).
Oharra: Parte hartu nahi dutenek 11:00etan Sutegi gimnasioara joan beharko dute suak eta bonbonak jasotzera. Kaldereteak 14:30erako bukatu behar dira epaimahaiak erabaki ahal izateko. Bazkaltzeko mahaia, bankuak eta ardoak eskainiko dira.
17:00 Goitibera jaitsiera.

Irteera: San Sebastian
baseliza. Helmuga: Ornako zubia. Sakana Motor Sport eta OGAK antolatuta.
18:00-20:00 Eztanda txaranga.
20:00 Euskaraldiaren Photocall-a.
20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa, San Migel plazan.
20:00 Gaztetxeen aldeko kontzentrak, plazan. OGAK antolatuta.
20:00-22:00 Javi Batusi DJarekin dantzaldia, San Migel plazan.
20:30 Goitiberen sari banaketa, plazan.
OGAK antolatuta.
21:00 Bonba japoniarrak, Intsumisioaren plazan.
21:00 Kontzertua: Tokan2 La Polla taldea, gaztetxean.
OGAK antolatuta.
23:30 Barsanti kopainiaren *Nosotros somos la ley* antzezlan, futbito pistan (euria egingez gero, Erburua kiroldegian).
00:30-03:30 Kojo Mante-k taldearekin musika, San Migel plazan.

UZTAILAK 25 Astelehena

12:00 Hamabietakoa Kamiogaina elkartearen eskutik, San Migel plazan.
12:00-14:00 Jolas parkea, Memoria Historikoaren parkean (euria egingez gero, Erburua kiroldegian).
13:00 Alegria Riber taldearekin bermut kontzertua, San Migel plazan.
14:30 Haur bazkaria, Memoria Historikoaren parkean (euria egingez gero, Erburua kiroldegian).

17:30 Sutegi taldearen pilota txapelketako finalak. Sari Banaketa.
Sutegi Taldeak antolatuta.
18:00-20:00 Eztanda txaranga.
20:00 Kakahueteak, gazta eta ardo banaketa, San Migel plazan.
20:00 Presoen aldeko kontzentrak, plazan. OGAK antolatuta.
20:00-22:00 The Trikiteens taldearekin dantzaldia, plazan.
21:00 Bonba japoniarrak, Intsumisioaren plazan.
21:30-23:30 Bokataka, txoznan. OGAK antolatuta.
22:00 Zezenzuskua.
23:30 Alurr dantza taldearen Itsas Lapurrak ikuskizuna, futbito pistan (euria egingez gero, Erburua kiroldegian).
00:00 Txupito gaua, gaztetxean. OGAK antolatuta.
00:30-03:30 The Trikiteens taldearekin dantzaldia, San Migel plazan.

UZTAILAK 26 asteartea

12:00 Erraldi, buruhandi eta gaiteroekin lagundurik elizaraino. Hamabietakoa Santa Ana elkartearen eskutik, San Migel plazan.
13:00 Olaztiko musika eskolarekin bermut kontzertua, San Migel plazan.
14:30 Jubilatuta eta adienduendako bazkaria, Kamiogaina elkartean. Bazkalondoan, Ciclón taldearekin dantzaldia.
14:30 Bazkaria, gaztetxean. OGAK antolatuta
18:00-20:00 Apar festa, futbito plazan.
18:00-20:00 Eztanda txaranga.
20:00 Hegaluzte parrillada, Vicente Argomaniz plazan.
20:00 AHTren aurkako kontzentrak, plazan.
20:00-22:00 Xaiborrekin musika, San Migel plazan.
21:00 Bonba japoniarrak,

Intsumisioaren plazan.
22:00 Zezenzuskua.
23:30 Kolpez blai batukada, San Migel plazatik.
00:30-03:30 Xaiborrekin musika, San Migel plazan.

ARAKIL

BAILARAREN EGUNA

UZTAILAK 25 Astelehena

09:00 Dianak, kontzeju guztietan.

ITXASPERRI

Goizean zehar, artisau azoka.
10:00 Egiarretatik jaitsiera Itxasperiara.
10:30 Meza
11:00 2020an eta 2021an jaiotakoei ongi etorria.
11:15 Otamena eta Arbizuko dantzariak.

EKAI

12:30 Ongi etorria. Gari jorratzeko makineria zaharberriaren erakusketa.
14:30 Herri bazkaria.
17:00 Mus, briska eta parbxis txapelketa. Puzgarriak eta barredora.
18:30 Dantzaldia Pancho Balbuenarekin.
20:00 Sari banaketa.

ETXARRI ARANATZ

FESTEN BEZPERA

UZTAILAK 29 Ostirala

16:00-16:45 Etxarri Aranazko festetako II. Mus txapelketako izena ematea.
30 euro bikoteko.
17:00 Etxarri Aranazko festetako II. Mus txapelketa.
19:00 Pala partidak.
Gure Pilota Elkartek antolatuta.
Jare-Nerea / Arhane-Katixa
Irati-Oskia / Iraia- June C.
Onditz-Lexuri / Izadi-June O.
Maialen-Julene / June A.- Olaia

Ander Gil Amadoren lanak iragarriko ditu Olaztiko festak

Retomar deitzen da Olaztiko festetako kartel lehiaketako 15 urtetik aurrerako kategorian irabazi duen irudiak. Ander Gil Amadoren lana da. Bi urteko pandemiaren ondoren festak itzuli direlari erreferentzia egiten dio. Haurren kategorian Adei Maraño Lacunzaren *Bi urte ondoren ondo pasa festetan* kartela izan da irabazlea.



Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Espainiako TREC Hipika Txapelketan brontzezko domina lortzeko sari ederra eman zion Mikel Zufiaurre Estevezi: abuztuan Frantzian jokatu den Mundialetan aritzeko txartela.

Jockeya ala zaldizkoa zara?

Jockeyak abiadurako lasterketetan aritzen diren zaldizkoak dira. Gainontzeko modalitateetan ibiltzen garenak, zaldizkoak edo amazonak gara.

Noiz hasi zinen hipikan?

Orain dela hiru urte. Arrebaren urtebetetzea zen eta familiarekin zaldi gainera paseoa egitera joatea izan zen oparia. Izugarri gustatu zitzaigun eta zaldi gainean ibiltzen ikasteko klaseak hartu genituen guztiok. Azkenean, arrebak eta biok jarraitu genuen, mailaz gora egin genuen, Mairu, gure behorra erosi eta gaur egunera arte. Agurainen trebatzen gara, Hípica Agurainen.

Denbora gutxian salto handia egin duzu. Joan zen urtean, 2021ean, Espainiako TREC Hipika Txapelketan txapeladunordea izan zinen. Nolako modalitatea da TREC-a?

TREC modalitatearen barruan hiru proba daude. Lehenengoa orientazioa da, garrantzitsua. Parte hartzaileok mapa bat eta iparrorratz bat daramatzagu eta mendira atera, eta orientazio proba bat gainditu behar dugu. Bigarren probaren izena PAR da, aireko proba. 100 metroko zelai bat daukagu, bi marrez mugatuta. Joatean pausu azkarrean joan behar da, trotera iritsi gabe eta marretatik atera gabe. Bueltakoan, aldiz, azkar etorri behar da, galopan, baina trotean hasi gabe. Azken proba PTV da. Mendian egiten da, eta bertan berez dauden oztopoak gainditzean datza, adibidez, atzeratze bat irekitzea, edo salto bat egitea, edo zirkulu batera sartu, zalditik jaitsi eta zaldizkoa zirkulutik ateratzea, zaldia barruan geldirik geratuz. Halakoak.

Zure zaldiarekin duzun harremana oso estua izan beharko da.

Bai. Oso pozik nago Mairurekin. Nik berarekin ikasi dut berak nirekin ikasi duena baino askoz ere gehiago. Askok irakatsi diogu, baina berak ematen diguna sekulakoa da. TREC-erako oso zaldi ona da. Zaldiekin harreman berezia egon behar da, feeling berezia. Konplizitate hori lortzeko ordu asko sartu beharra dago, baina lehendabiziko egunetik Mairurekin harremana ona da.

"TREC Hipika Mundialean aritzea sekulako oparia da"

MIKEL ZUFIAURRE ESTÉVEZ ZALDIZKOA

HIPIKA Gazte altsasuarrak abuztuaren 26tik 28ra Orleans ondoan jokatu den Munduko TREC Hipika Txapelketan parte hartuko du Mairu bere zaldiarekin



Mikel Zufiaurre Estévez, Mairuren gainean. UTZITAKOA

Nik badakit mugimendu bat egin aurretik nola egin behar duen. Adibidez, salto batean hemendik joango dela, gero hortik... badaikit, instintiboki.

TREC-a al da gehien gustatzen zaizun modalitatea?

TREC-a modalitate osoa da. Saltoak eta bestelakoak ere egiten ditut, baina gaur egun TREC-ean aritzen naiz gehien. Nire berezitasuna da. Abiadura ere gustuko dut, baina lasterketak ez. Hipodromoko karrerak ikustea bai, baina egitea ez.

Aurten Espainiako TREC Hipika Txapelketan brontzezko domina lortu, eta orientazio proban Espainiako txapeladuna izan zinen. Eta, garrantzitsua, Mundialetan parte hartzeko txartela lortu duzu.

Espainiako TREC Hipika Txapelketa Torrejon El Rubion (Extremadura) jokatu zen. Orientazio proban onena izan nintzen, baina beste bietan ez nintzen horren fin ibili eta horregatik puntuazioa jaitsi eta hirugarren sailkatu nintzen txapelketan. Dena den, oso kontentu nago.

Espero al zenuen?

Genituen helburuak bete genituen. Aurten Mundialak jokatu-

"ZALDIAREKIN KONPLIZITATE HORI LORTZEKO ORDU ASKO LAN EGIN BEHARRA DAGO"

ko direnez, guztiak motibatua goak geunden eta gogo handiz prestatu genuen txapelketa. Podiumean sailkatzen zirenek zuzenean lortzen baitzuten Mundialetan Espainiako selekzioarekin aritzeko txartela. Gainontzekoek, puntuazioaren arabera.

Noiz jokatu da Mundiala?

Abuztuaren 26tik 28ra, Orleans (Frantzia) ondoan. Nire ohiko entrenatzaileekin ari naiz Mundiala prestatzen, Roberrekin eta Carmenekin, Hípica Agurainen. Astelehenean, uztailaren 25ean, Avilara goaz, Espainiako hipika selekzioarekin Mundiala prestatzeko kontzentrazioa egitera. Guztira 16 zaldizko eta amazona gara, nire kategoriakoak, izar batekoak, lau. Aurten 15 urte beteko ditut eta izar bateko mailan nago, baina datorren urtean mailaz igoko naiz.

Munduko Txapelketan parte hartzea handia da. Nola zaude?

Oso pozik eta hunkituta nago. Selekzioa kide gehienak ezagutzen ditut, aurretik Espainiako Txapelketetan eta beste proba batzuetan aritu izan garelako, baina bakoitza bere federazioarekin, ni Euskal Hipika Federazioarekin. Mundialean Espainiako selekzioarekin ariko gara. Iruñeko mutil batek parte hartuko du ere, lagun oso ona. Gainontzekoak Kataluniakoak, Gaztela eta Leongoak eta beste-lako probintziakoak dira.

Zure zaldiarekin lehiatuko zara?

Bai, bakoitza bere zaldiarekin lehiatuko da, bestela zerotik hasi bezalakoa litzateke, zaldiarekin harreman hori ez baita egun batean sortzen. Bi zaldi eraman ahal izateko kamioi txiki bat dugu eta Avilara nirea eta Iruñeko mutilaren zaldia eramango ditugu. Frantziara kamioi handian eramango dituzte zaldiak, baina hori Espainiako selekzioak lotuko du.

Mundiala zailagoa izango dela espero duzu?

Baietz uste dut, Mundiala delako, baina ez dakit. Nolanahi ere, ni Mundialean disfrutatzea joango naiz, nire lana ahalik eta hobekien egitera.

Udako oporretan Mundiala prestatzea zer da zuretzako?

Sekulako oparia. Oso pozik nago egun osoa hipikan entrenatu ahal izango dudalako eta Mundialera joan ahal izango dudalako.

Hipikak guztiz harrapatu zaitu.

Bai (kar, kar).

Campusekoak, Sakanako Haur Triatloiari begira

TRIATLOIA Urdiaingo igerilekuek Sakanako XX. NKJ Triatloia hartuko dute larunbatean, 10:00etatik hasita. Jubenilak izango dira goiztiarrenak, eta ondoren kadeteen, haurren, kimuen eta benjaminen probak izango dira

Sakana Triatloi Taldeak eta Nafarroako Triatloi Federazioak hainbat entitate eta elkarteen laguntzarekin antolatuta, larunbatean Sakanako XX. NKJ Triatloia jokatu da Urriztin, Urdiaingo igerilekuetan, eta inguruko paraje zoragarrietan.

60 partaide inguru

Goizean goiz hasiko da mugimendua Urdiaingo igerilekuetan. Junior mailakoak 9:30etarako egon beharko dira Urdiaingo igerilekuetan, material kontrola gainditzeko. 10:00etan juniorren proba hasiko da (18 luze-8 km-2,2 km), 11:25ean kadeteen eta haurren proba (10 luze-4 km-1,1 km), 12:30ean kimuen (8 luze-3 km-750 m) eta 13:15ean benjaminena (4 luze-1,5 km-350 m).

Nafarroako Triatloi Federazioetik adierazi dutenez, 60 gaztetxo inguruk eman du izena Sakanako Haur Triatloian. Gehienez ere 26 gradu aurreikusten dira, primerako eguraldia.



Udako triatloi campuseko kideak, Ekhi Congil eta Maalen Beraza monitoreekin.

Triatloi campusa

Sakanako Haur Triatloian ari-tuko diren gaztetxo horietako asko astelehenean hasi eta gaur, ostirala despidituko den Sakanako Triatloi Campuseko partaideak dira. Maalen Berazaren

eta Ekhi Congilen begiradapean trebatu dira, Arbizun. "Astelehenean ez ginen kiroldegitik atera ere egin, beroagatik" kontatu dute. Asteartetik aurrera, txirrindularitza, atletismoa eta igeriketa landu dituzte.



ESPAINIAKO ATLETISMO FEDERAZIOA

57,83 metro

DISKO JAURTIKETA June Kintanak 57,83 m-ko jaurtiketa egin zuen Corrales de Buelnan bere marka pertsonala (56:30 m, 2017) gaindituz. 2001etik Rita Lorak zuen Nafarroako errekorra apurto du. "Denboraldiko helburu guztiak bete dira eta esfortzuak saria izan du. Bide honetan lagundu nauten guztiekin oso eskertuta nago" azaldu du, pozik.

Sakana Group-Aralarren garaipen bikoitza

TXIRRINDULARITZA Mikel Uncillak Arantzazuko Igoera irabazi zuen eta Aimar Tadeok Lizarra Saria

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Asteburuan garaipen bikoitza ospatu du Sakana Group-Aralar Txirrindularitza Taldeak. Larunbatean Mikel Uncilla etxarriarra azkarrena izan zen Oñati eta Arantzazu lotu zituen 52. Arantzazura Igoerako arranpata. Bero izugarriari aurre egin zion, behar zuenean eraso joz eta helmugara bakar-bakarrik helduz (1:18:46) eta denboraldiko bere laugarren garaipena lortu zuen. Bere taldekide Adrian Martinez hamargarren sartu zen eta Aimar Tadeo 31.

Igandean, Lizarran, beroak baldintzatutako proba gorabeheratsuan Aimar Tadeo ezin hobe kokatu zen, aurrera jo eta lehena iritsi zen helmugara (2:16:49), bere lehen garaipena lortuaz. Hirugarren Mikel Uncilla sartu zen. Top Tenean Adrian Martinez seigarren sailkatu zen eta Asier Etxeberria (Quesos Albeniz) hamargarren.

Bestalde, kadeteen mailako Iturmendi Sarian Iker Begiristain (Quesos Albeniz) hirugarren sailkatu zen, Otxoa de Aspuru irabazlearen denbora berean.



Mikel Uncilla, ezkerrean, eta Adrian Martinez, erdian, Aimar Tadeo, eskuinean, zoriontzen, Lizarran. MARTIN EARLY

Iruñeko Itzulia, Sakanatik

Hurrengo egunetan juniorren mailako emakumezkoen eta gizonezkoen Iruñeko Itzulia jokatuko da eta bi probak Sakanatik pasako dira. Emakumezkoena larunbatetik astelehenera jokatuko da. Igandeko etapa Atondotik sartuko da Errotzera, 11:50 aldera, eta Errotzetik Urritzolako bidea hartu, Etxarrenera heldu, eta Irurtzundik aurrera eginez, Latasara sartuko da. Gizonezkoen Itzulia 26tik 29ra jokatuko da. Osteguneko etapa 17:45 aldera sartuko da Errotzera, Atondotik. Errotzen Urritzolako bidea hartu, Etxarrenera heldu eta Etxeberrin Madotzera egingo du itzuliak, Zuarrarrate igo eta Oderitzera iristeko.

tuko da. Igandeko etapa Atondotik sartuko da Errotzera, 11:50 aldera, eta Errotzetik Urritzolako bidea hartu, Etxarrenera heldu, eta Irurtzundik aurrera eginez, Latasara sartuko da. Gizonezkoen Itzulia 26tik 29ra jokatuko da. Osteguneko etapa 17:45 aldera sartuko da Errotzera, Atondotik. Errotzen Urritzolako bidea hartu, Etxarrenera heldu eta Etxeberrin Madotzera egingo du itzuliak, Zuarrarrate igo eta Oderitzera iristeko.

kutuko da. Osteguneko etapa 17:45 aldera sartuko da Errotzera, Atondotik. Errotzen Urritzolako bidea hartu, Etxarrenera heldu eta Etxeberrin Madotzera egingo du itzuliak, Zuarrarrate igo eta Oderitzera iristeko.

DATORREN ASTEAN
GUAIXE BEREZIA
IZANEN DA

ETA ONDOREN...
OPORRETARA GOAZ!
ABUZTUAREN 29AN IZANEN GARA BUELTAN

 **guaixe**
fundazioa



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

LARUNBATA 23

URDIAIN Sakanako XX. NKJ Triatloia.
Gazteen, kadeteen, haurren, kimuen eta benjaminen mailako triatloi probak. Sakanako Mankomunitateak, Sakana Triatloi Taldeak eta Nafarroako Triatloi Federazioak antolatuta.
10:00etan, igerilekuetan.



ZIORDIA Saskibaloitxapelketa.
V. Ziordiko 3x3 saskibaloitxapelketa solidarioa. Ziordiko Running taldeak eta Ziordiko Udalak antolatuta.
10:00etatik aurrera, parkean.

IGANDEA 24

ALTSASU Euskal preso eta iheslariak etxera elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTEAZKENA 27

ALTSASU Hondartzara irteera.
Gazteria zerbitzuak antolatutako Donostiara bidaiak.
10:30etik 19:30era, autobus geltokitik.

IRURTZUN Udako zinema.
Dora y la ciudad perdida filmaren emanaldia.
22:00etan, Foru plazan.

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 22  Min. 14° Max. 21°	Larunbata, 23  Min. 13° Max. 23°
Igandea, 24  Min. 14° Max. 37°	Astelehena, 25  Min. 15° Max. 25°

Bazkide
Zozketa

UZTAILEKO SARIAK

1. SARIA

Juantxo Azurmendi Zelaia (Altsasu)

2. eta 3. SARIAK

Kinti Romero Fernandez (Altsasu)
Ainara Galbete Acebes (Olazti)
Teresa Goikoetxea Arregi (Lizarragabengoa)



OROIGARRIA

Javier Martín Rodríguez

(I. urteurrena)



Ahazten ez dena ez delako sekula hilko
Gure artean bizirik zaude

Zure familia

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU **ETXARRI ARANATZ**
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 - www.izarratanatorio.com

JAIOTZAK

- **Luar Beltza Fernandez**, uztailaren 8an Etxarri Aranatz
- **Noah Zabalza Llano**, uztailaren 11n Arbizun

HERIOTZAK

- **Jesus Mazkieran Muñoz**, uztailaren 13an Altsasun
- **Eduarne Etayo Gaston**, uztailaren 14an Lakuntzan
- **Nieves Razkin Oskoz**, uztailaren 14an Arbizun
- **Araceli Bakaikoa Martinez**, uztailaren 15ean Uharte Arakilen
- **Maria Luisa Lizarraga Mendinueta**, uztailaren 18an Arbizun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN
DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

JARRI ZURE
IRAGARKI LABURRA!

948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak



IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Iturmendiko Udalak zer-bitzu anitzetako langilea kontratatzeko deialdia zabaldu du: Oposizio lehiaketa bidez beteko da lanpostua. Interesa dutenek euskara jakin beharko dute (B2 maila). D mailari dagokion soldata eta Iturmendiko Udaleko plantilla organikoan jasotzen diren osagarriak ere jasoko ditu. Udalak gainontzeko gainditutakoekin lan poltsa osatuko du aldi baterako kontratazioak egiteko. Eskabideak uztailaren 30era arte aurkeztu daitezke.

LEHIAKETA

Iruñeko Udalak Egile Berrientzako XXXII. Euskarazko Literatur Lehiaketa: Egileek lan bana aurkezten ahaliko dute modalitate bakoitzeko. Idazlanek gai librea izan behar dute eta euskaraz idatziak izan beharko dute, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak. Sari modalitateak: poesia (lanak gubietan 200 bertso-lerro izan behar ditu) eta narrazioa (lanak gutxienez 15 orri izan behar ditu Arial letra mota, 11 tamainakoa, tarte bikoitzaz). Lehen saria 2500 eurokoa eta bigarren saria 1000 eurokoa izango dira modalitate bakoitzeko. Epea urriaren 28an amaituko da. Parte hartu nahi baduzu www.pamplonacultura.es web orrian dagoen inprimakia bete behar da. Informazio gehiago web orri horretan ere.

Etxarri Aranazko Udalaren bandoa uraren erabilerraren inguruan: Udalak soilik beharrezko ura erabiltzea eskatu du. Udalak jakinarazi duenez herria hornitzen duen biltegia husten ari da. Horregatik, besteak beste lorategiak ez ureztatzea eta autoak eta kaleak ez garbitzea eskatzen du. Bere aldetik, Udalak, iturrietako ura moztu du.

Olatziko festetako haur eta jubilatu bazarierako txartelak eskuragai daude: Santa Ana festen barruan, Olatzagutiko Udalak bi bazkari antolatu ditu, bata haurrendako eta bestea jubilatuendako. Haurren bazkaria Memoria Historikoa erparkean izanen da hilaren 25ean, astelehenarekin, 14:30ean. Seme-alabak haur bazkariaren onuradunak izango dira. Bata haurrendako eta bestea jubilatuendako bazkaria hurrengo egunean, uztailaren 26an, 14:30ean izango da. Kamio gaina jubilatu elkartearen. Udalek haur eta jubilatu bazarierako txartelak 11 euroren truke.

OHARRA

Etxarri Aranazko Udalak jakinarazi du festetan

buruhandiak eramateko pertsonen bila dabilela: Festetako eguerdi gutxietan ateratuko dira eta gastu guztiei aurre egin ahal izateko dirua biltzeko kanpaina bat hasi du. Ekarpentak kontu korronte honetan egin daitezke: ES23 3035 0058 3905 8011 6401.

Etxarri Aranazko festetako jubilatu bazarierako txartelak eskuratu daitezke: Udaleko bulegoan uztailaren 20ra arte jaso daitezke 10:00etatik 14:00etara orduetara. Bazkaria agorriaren 3an, Aittun-amiñan eguna izango da. Etxarri Aranatzeko erroldatuta eta 65 urtetik gorakoak dohaiak joan daitezke bazkaltzera, baina, derrigorrezkoa da txartela eskuratzeko. Baldintzak betetzen ez dituztenek 26 eurotan erosi ahal dute bazkariako txartela.

Etxarri Aranazko Udalaren bandoa uraren erabilerraren inguruan: Udalak soilik beharrezko ura erabiltzea eskatu du. Udalak jakinarazi duenez herria hornitzen duen biltegia husten ari da. Horregatik, besteak beste lorategiak ez ureztatzea eta autoak eta kaleak ez garbitzea eskatzen du. Bere aldetik, Udalak, iturrietako ura moztu du.

Gazteen Jaibuserako baimena: Jaibus zerbitzua gidabaimena dutenei zuzenduta dago. 16 eta 17 urteko gazteak herrietako festetara joaten direla, haiekin salbuespena egiten da eta Jaibusera igozteko aukera dute. Horretarako, familien baimena izan behar dute. Hori haien gurasoek edo legezko tutoreek egin beharko dute beraien eremuko Oinarriko Gizarte Zerbitzuan, adingabearen argazki bat eramanez eta inprimakia bat bete. Irurtzongo OGZ udaltxeko lehen solairuan dago, tfnoa 948 600 694, Etxarri Aranazko Kultur etxe-ko bigarren solairuan, tfnoa 948 460 752 eta Altsasuko Garbitoki egoitzako azken solairuan, tfnoa 948 467 662.

Nafarroako Torturatuaren Sarearen kanpaina: El-karte batean batu dira eta gastu guztiei aurre egin ahal izateko dirua biltzeko kanpaina bat hasi du. Ekarpentak kontu korronte honetan egin daitezke: ES23 3035 0058 3905 8011 6401.

Lakuntzako festetako Playback lehiaketan parte hartzeko izen ematea zabalik: Abuztuaren 28an, igandean, egingo den lehiaketan parte hartzeko parteideen izenak eta aukeratuak kanta jakinarazi behar da emailak.lakuntzakultura@gmail.com helbidera idatziz abuztuaren 15a baino lehen. Baldintza bakarra kanta euskaraz izatea. 3 sari egongo dira, animatu eta parte hartu!

Etxarri Aranazko XXVII. Playback txapelketa: Abuztuaren 2an, asteartean, atsaldeko 19:00etan egingo den lehiaketan parte hartzea animatzen dute Udalek. Sariak korreografia onenari 100 euro, euskal abesti onenari 100 euro eta parte hartzen duen talde bakoitzari 25 euro. Izan ematea kultura@etxarriaranatz.eus helbidean edo egunean bertan 18:30etik aurrera eszenatokia. Musika CDan edo USBan aurkeztu behar da. Epaimahaia herriko eragile desberdinez osatuta egongo da.

Gazteen Jaibuserako baimena: Jaibus zerbitzua gidabaimena dutenei zuzenduta dago. 16 eta 17 urteko gazteak herrietako festetara joaten direla, haiekin salbuespena egiten da eta Jaibusera igozteko aukera dute. Horretarako, familien baimena izan behar dute. Hori haien gurasoek edo legezko tutoreek egin beharko dute beraien eremuko Oinarriko Gizarte Zerbitzuan, adingabearen argazki bat eramanez eta inprimakia bat bete. Irurtzongo OGZ udaltxeko lehen solairuan dago, tfnoa 948 600 694, Etxarri Aranazko Kultur etxe-ko bigarren solairuan, tfnoa 948 460 752 eta Altsasuko Garbitoki egoitzako azken solairuan, tfnoa 948 467 662.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburra.eus

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

Bost, sei, zazpi... dantza!

Paula Urabayen Ochoa-Aizpurua dantzariak Madrilgo dantza eskola batean udako ikastaroan aritzeko beka jaso zuen. Altsasuarrak uztailean astebeteko ikastaro trinkoa egin zuen, Iker Karrera bezalako dantzari ospetsuarengandik klaseak jasoz

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Dantzaren munduan aritzen direnendako Iker Karrera eta Raymon Naval izenak ezagunak dira. *Fama, a bailar!* telebista saioaren azken bi denboralditako irakasleak izan ziren. Paula Urabayen Ochoa-Aizpurua gazteak ere telebistan ezagutu zituen, haurra zenean, "eta ezin nuen sinetsi orain haien klasean egoitea". Altsasuarrak Madrilgo 180 Danza eskolan ikastaro trinkoa egin zuen uztailaren hasieran, Burgosko Orbe dantza txapelketan beka bat irabazi zuelako. Txapelketa horretan ere urrezko domina eta dantzari errebelazio saria irabazi zituen.

Koreografia

Dena Urabayenek sortu zuen koreografia batekin hasi zen. "Abestiak jartzen hasi nintzen eta batek atentzioa eman zidan, begiak itxi nituen, eta gorputza mugitzen utzi nuen. Pauso politak egiten hasi nintzen, eta koreografia polita atera zitekeela pentsatu nuen". Bukatu zutenean dantza asko gustatu zitzaion eta amari erakutsi zion, "eta amari ere asko gustatu zitzaion". Irantzu Gonzalez Dantza Eskolak Burgosko Orbe dantza txapelketan zenbait talderekin parte hartu behar zuenez, bakarlari bezala joateko aukera zegoen galdetu zioten. "Baietz esan zigun, zenbat eta jende gehiago joan, orduan eta esperientzia politagoa izango zelako". Martxoko aste-buru batean izan ziren Burgosen, eta aurkeztuko bi taldeak eta Urabaienek sariarekin itzuli ziren.

Txapelketara "oso urduri" joan zela aitortu du dantzariak, izan ere, aldi berean hainbat kategoria jokatzeko dira, eta Urabayen bakarrik joan zen. "Dantza egin

nuenean dena pasatu zitzaidan". Espektatibarik gabe joan zen, bakarlari bezala aritzen zen bere lehenengo aldia zelako, "ongi pasatzera joan nintzen, lagunekin txapelketa batean ongi pasatzera, beste hiri batean, eta lehiaketa bat barrutik nolako zen ikustera". Epaimahaien preferentziak ezagutu nahi zituen, eta dantzaren munduko jendea ezagutu. Beste dantza eta koreografia batzuk ikusi nahi zituen ere, "beste estilo eta teknika batzuk ezagutu".

Txapelketa horretan epaimahaiak sari bereziak ematen ditu, eta horietako bat Madrilgo 180 Danza eskolan aritzeko beka bat da, eta Urabayenek irabazi zuen. "Udako ikastaroetan parte hartzeko erdia ordaintzen zidaten. Iker Karrera eta Fernando Lazaro dantzari eta koreografoek sortutako dantza eskola dela azaldu du altsasuarrak, eta ikasketa profesionala eskaintzen dute. Musikaletarako, iragarkietarako eta abarretarako trebakuntzak egiten dituzte. Dantzaren munduan "zure lekua aurkitzeko" lan handia egiten dutela azaldu du. Udako ikastaroan parte hartzeko, dantzariak nahi zituen klaseak aukera zitzakeen, eta Urabayenek bere estiloarekin bat egiten dutenak aukeratu zituen. Uztailaren hasieran astebate egon zen Madril, dantza eskolan.

Goi mailako irakasleak izan zituen: Clara Perezek jazza ematen zuen, Iker Karrera jazz fun-

ka, Fernando Lazarok jazz musika eta Marta Lopezek Balleta "Balletaren oinarria behar nuen, baina jakin nahi nuen normalean egiten dudanarekin alderantzea eta horregatik hartu nuen klasea, zerbait berria probatu nahi nuen, eta horregatik jazz musika hartu nuen. Iker Karrera-rena egundokoa iruditu zitzaidan orain asko lantzen den estiloa delako, eta leku askotan ikusten da dantza estilo hori. Clara Perezekin hartu behar nuen bera izan zelako beka eman zidan epaimahaikidetakoa bat, eta hori da gehien gustatzen zaidan estiloa". Jazz estiloa, orokorrean, estiloen nahasketa bat da. "Jazz musika edo lirikoa ez dira berdinak, baina antzekotasunak dituzte; ez da garaikidea bezain gogorra edo balleta bezain zurruna".

Fama

Ikastaroan "asko ikasi" duela esan du Urabayenek. Jende asko ezagutu du ere: "ACADEko azterketak prestatzen ari den jendea, bere helburuak argi dituztenak. Eta motibatu naute". Txikitan Fama a bailar! saioan telebistatik ikusten zituen irakasleak izan ditu, "ilusio handia sortu zidan, eta asko ikasi dut".

"Oso gogorra dela ikasi dut ere, helburu bera daukan jende asko dagoelako. Lan handia eta gogorra egin behar da. Zeure burua saltzen eta lotsak alde batera uzten ikasi behar dugu". Madrilgo dantza eskolan "iniziatiba pixka bat izaten eta jendeak zu ikustea" beharrezkoa dela irakasten dute. "Haiek oso ongi dakite nola egin hori". Noizbait *Fama* bezalako saio batean parte hartzeko deialdia badago aurkeztuko dela aurreratu du altsasuarrak.

"ESPERIENTZIA POLITA IZAN DA, BAINA MUNDU HAU GOGORRA DELA IKASI DUT ERE"



Iker Karrera dantzaria eta irakaslea eta Paula Urabayen dantzaria. UTZITAKOA

"Kalderete txapelketan sekulako giroa sortzen da"

Gaur, ostirala, Irurtzongo festetako kalderete txapelketa dago antolatuta. Txapelketa antolatzen urte mordoa daramatza Maria Eugenia Barroso Carrillok eta bertan izena eman eta parte hartzera animatu ditu irurtzundarrak

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN

1 Zenbat urte daramatzazu kalderete txapelketa antolatzen?

23-24 urte inguru. Erga Larreak elkartekoa naiz, eta Irurtzongo Kultur Kontseiluan parte hartzen dugu. Aurretik ere Irurtzunen kalderete txapelketak antolatzen ziren, baina elkarteak kalderete txapelketaren ardura hartu zuen orduan, eta ordutik nabil. Urte asko eman ditut txapelketa bakarrik antolatzen, udal langileen eta elkartearen laguntzarekin, 15 urte inguru.

2 Irurtzongo festetako ostiralean izaten da txapelketa.

Bai. Egun berean eman behar da izena, 13:00ak arte.

3 Zein izaten da zure lana?

Aurretik sariak lotu, epaimahaia lortu, urtero aldatzen baita, eta beste. Kalderete egunean



Maria Eugenia Barroso Carrillo, Biazpe atzean duela.

izena emateak kudeatu –talde bakoitzari zenbaki bat ematen zaio eta izen berezi bat eskatu, epaimahiak nortzuk diren ez jakiteko–, mahaia antolatu, sariak banatu... Udalak ogia, ardoa, mahaia eta aulkiak jartzen ditu. Urte asko dira, badakit zer egin behar den. Baina aurren ezberdina izango da.

4 Zer dela eta?

Goizean goiz agertuko naiz laguntzera, baina gero joan beharra dut. Espero dut sari banaketarako bueltan egotea. Erga Larreakoei egin beharrekoak azaldu dizkiet beraiek aurrera egin dezaten.

5 Txapelketak harrera ona du?

Bai. Hasieran nagusiak ziren gehienak. Guillermo Iñigo eta Maritxu Lizaso ditut gogoan: sarritan irabazi zuten. Nire erreferenteak izan ziren. Baina txapelketa herrikoia bilakatu zen, eta denetarikoa kuadrillak hasi ziren parte hartzen: jubilatua, helduak, 15-17 urteko gazte kuadrillak... Behin 27 taldek hartu zuten parte, hori izan da kopururik handiena.

6 Horrenbeste jende bilduta, giro ederra egongo da.

Goizetik giro oso polita sortzen da. Kalderetearen prestaketarekin hasten diren bitartean haiketakoak prestatzen dituzte, denetarikoa pintxoetara gonbidatzen naute (kar, kar...). Udaltxeko eta Osasun Etxeko portxeak mahaiz beteta egoten dira gero kuadrillak bazkaltzera geratzen direlako. Tokia txiki geratu denez, udalak goiko frontoiari karpa jarri du ere bertan mahaia jarri ahal izateko. Sekulako giroa izaten da. Aipatu dutenez, aurren txaranga egonen da. Nik disfrutatzen dut.

7 Festetako programan jasotzen denez, untxi edo axuri kaldereteak behar dute izan.

Aurren festen programan argi eta garbi jartzen du untxi edo axuri kaldereteak behar dutela izan, eta hori zehaztea oso ongi iruditzen zait. Berez untxizko kaldereteak egin izan dira beti, baina geroago axuriarekin hasi ziren eta urte batzuetan denetarikoa egon izan dira: oilaskoa, orkatza, basurdea, oreina, txahala... Epaimahaiarendako oso

zaila izaten zen baloratzea, oso ezberdinak baitziren. Parte hartzaileak ere haserretzen ziren: nola ez du irabaziko, txahal kalderetea egin badu? Eta halakoak. Polemika handia egoten zen.

8 Kalderete txapelketetan beti egoten da polemika.

Hasieran gaizki pasatzen nuen, baina gero erabaki nuen horren estu ez hartzea. Sarritan esan didate ere tongoa egon dela. Betikoa. Behin nire osaba batek irabazi zuen, eta pertsona batek parte hartzaileen zerrenda eskatu zidan, ikusteko zenbaki bakoitzak asmatutako izena zuela ondoan, eta epaimahiak ez zekiela osaba nor zen. Batzuei esan nien, txantxetan, egun batean tongoa egingo nuela, eta orduan ez zela inor enteratuko (kar, kar...). Beti egoten da guztia kritikatzeko duen jendea, baina gutxienezkoa da. Jende gehienak gustura parte hartzen du, ongi pasatzen du, eta egun zoragarria izaten da.

9 Aurren jende asko animatuko dela uste duzu?

Ostiralean ikusiko da. Bi urte daramatzagu kaldereterik gabe eta jendea gogotsu dago. Aurren birusak ez du baldintzatuko, eguraldiak bai, ordea. Ez gaude 40 gradutara ohituta, ezta 30 gradutara ere, eta badirudi festa beroak izango direla. Hala ere, parte hartzera animatzen ditut irurtzundarrak. Halako ohitura ederrak ez dira galdu behar.

10 Epaimahaia nork osatzen du?

Sukaldatzen ongi dakiten etxekoandreak, elkarteetako ordezkariak, sukaldari profesionalak... denetarik. Bi urtetan Iruñeko Kabo jatetxeko Aaron Ortiz sukaldari irurtzundarrak parte hartu izan zuen.

11 Kalderete txapelduna nor den aukeratzea ez da lan erraza.

Urtero epaimahaiarendako oso erabaki zaila izaten da txapelduna hautatzea. Sariei dagokienez, lehendabizikoak axuria edo txerrikumea jasotzen du, bigarrenak bi untxi, gazta eta ardoa eta hirugarrenak ardoa. Sari handiena txapelketa irabaztea da. Azaroan, San Martinetan, postre txapelketa antolatzen dut Erga Larreaken eta jende askok parte hartzen du ere.

DATORREN
IKASTURTEAN
ZURE DISEINUAK
AIRERATU

DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Aitsasu